

**665/2025 EBAZPENA, ekainaren 10ekoa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuan Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua hautatzeko deialdian onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzeko dena.**

## AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen martxoaren 6ko 267/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa sistemaren bidez (2025eko apirilaren 10eko EHAA 70 zk. eta 2025eko apirilaren 22ko BOE 97 zk).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko ekainaren 2an amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendariaren maiatzaren 15eko 547/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Aurrekoa ikusita, ebazpen honen bidez argitaratzen da onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda, eta Balorazio Batzordea izendatzen da.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

## EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESlan Onkologia Medikoko Zerbitzu Sanitarioko Buruaren lanpostua betetzeko deitutako lehiaketan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onartzea (I. eranskina).

Bigarrena. — Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

Hirugarrena.— Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Donostialdeko ESIko Zuzendaritza Gerentziari, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2025eko ekainaren 10ean.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea  
EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa)

Langileen zuzendaria,  
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.

DONOSTIALDEA ESI  
DONOSTIALDEA  
LANGILEEN ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN DE PERSONAS

## I. ERANSKINA

### DONOSTIALDEKO ESiko ONKOLOGIA MEDIKOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA.

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Naiara Sagastibeltza Mariñelarena.

Baztertuak:

- Inor ez

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.

## II ERANSKINA

### DONOSTIALDEKO ESIko ONKOLOGIA MEDIKOKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUAREN LANPOSTUA.

#### BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Sara Arévalo Lobera andrea (Donostialdeko ESIko zuzendari medikoa)

Ordezkoa: María Eugenia Alkiza Eizagirre andrea (Bidasoako ESIko zuzendari medikoa)

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: José Javier Zubeldia Caminos jauna (zuzendariorde medikoa – Donostialdeko ESIko Arlo medikoa)

Ordezkoa: Jon Alexander Sistiaga Suarez jauna (zuzendariorde medikoa – Donostialdeko ESIko Kirurgia Arloa)

Bigarren batzordekidea:

Titularra: Josefa Ferreiro Quintana (Barrualde-Galdakao ESIko Onkologia Medikoko Osasun Zerbitzuko burua)

Ordezkoa: Ruth Vera García (Nafarroako Ospitaleko Onkologia Medikoko zerbitziburua)

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Alfonso Martín Carnicero (Logroñoiko San Pedro Ospitaleko Onkologia Zerbitzuko burua)

Ordezkoa: María Purificación Martínez Del Prado (Bilbo-Basurtu ESIko Onkologia Medikoko Osasun Zerbitzuko burua).

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatua):

Titularra: Severina Domínguez Fernández (Arabako ESIko Onkologia Medikoko Osasun Zerbitzuko burua).

Ordezkoa: Alberto Muñoz Llarena (Ezker.-Enkart.-Gurutzeta ESIko Onkologia Medikoko Osasun Zerbitzuko burua).

Idazkaria:

Titularra: María Pilar Sánchez Garduño andrea (Donostialdeko ESIko Pertsonen zuzendaria)

Ordezkoa: María Estrella Garrido Manzano andrea (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonen zuzendaria).